



ALBERTO ERRAZTI

Itsasaldeko ingurugiro arazoak

Kostaldea mehatxatzen duten arazoak hainbat eta askotarikoak dira, baina, gehienetan, gizakion jardueraren ondorio izaten dira

ITZIAR MIELGO

Itsasaldearen arazo larrienetarikoa bat azpiegituren eraikuntza da, hala nola, portuak, itsasaldeko pasealekuak, kaimuturrak... Askotan interes turistikoetara erantzuten dieten azpiegitura hauek, itsasaldeko dinamikan eragina dute; kostaldearen higadura areagotuz, hondartzetako dunak eta labarrek arriskuan jarritzen dira. Euskal Herrian, adibidez, ezagunak dira Jaizkibelen eraiki nahi den superportuak kostaldean eragingo dituen kalte larriak. Itsas hondarren dragatzeak —Urdaibain hainbeste alditan salatu duten jarduerak—, eta portuak eraikitzeak edota handitzeak txikitu egiten ditu ingurugiroarentzat balio handi duten hondarreko landare-komunitateak. Azpiegitura eraikitzeak ere itsasaldeko paisaia artifizial bihurtzen du.

Itsasaldeko uren kalitatearen gainbehera ere kontuan hartu beharreko arazoa da: industrietako isurketek eta araztu gabeko ur zikinek uraren kalitatea gutxitzen du. Gainera, urpeko isurbide handiek ere urpeko hondarrei larri eragiten diete, eta itsasaldeko biodibertsitatea txikiagotzen dute. Fanerogamoen zelaiak desagertzea edo hauen gainbehera, kalitatea galtzearen adierazlea da; fanerogamek, hain garrantzitsuak diren sedimentuak atxeki, eta oxigenatzeko funtzioa dute.

Kostaldeko inguruetan egiten den hirigintza ere aipatu beharra dago. Adibidez, Kantabriako hainbat herritako kasua da honakoa: giza-kokapena, askotan, oporretarako etxeak eginez, eta espekulazio bortitza joan delarik. Paisaiarentzat ere eragin larria da, eta kostaldearen balio naturalei eraso egiten die (itsasaldeko eta itsas-haizeen dinamika aldatu, babestutako eremu naturalak desagertarazi, gainean eraikitako etxebizitzengatik...). Hirigintzarekin batera, lehen aipaturiko azpiegiturak datoz (aireportuak, kaiak, hondartza artifizialak...).

Itsasaldearekin erlazionatuta dauden eremu naturalak ere

gainbehera doaz askotan. Itsasaldeko ekosistema bereziak diren dunek, labarrek, estuarioek, itsas-padurek... itsasaldearen kudeaketa txar baten ondorioak pairatzen dituzte. Hainbestetan entzundako klima aldaketa, hots, berotegi-efektua duten gasak sortzen jarraituz gero, zientzialariek kaleratutako datuak kezkarriak dira: itsasoaren maila metro bete igo daiteke. Gertakari honek, ingurune egoera asko aldatuko ditu: organismo batzuk ez direlako gai izango azkar egokitzeko, itsasoaren maila hazten bada, itsasaldeko hezegune eta duen sistema asko desagertu daitezke...

Itsasaldearekin erlazionatuta dauden eremu naturalak gainbehera doaz askotan



Urdaibai ibaiaren itsasoratzea. • EGUNKARIA

Ibaiak bideratzea, urtegiak eraikitzea, eta baita idorrek ateratzeko ere lurpeko sedimentuak ekartzea galarazten dute. Kostaldetik urrun egiten diren jarduerak hauek itsasaldean eragina dute: itsas ertzaren higadura, hondartzen eta duna sistemen atzerapena... Kasu honen adibide tamalgarria Espainiak onartu duen plan hidrologikoa da; iparraldean eraikitako urtegiek bertan egiten duten kalteaz gain, Mediterraneo Itsasoko hondartzetan eragin latza izango dutelako.

Itsasaldeak dituen arazoak ez dira hemen bukatzen: arrantza baliabideen agortzea, ur baliabideen kudeaketa jasanezina, paisaiaren eta betiko baliabide naturalen gainbehera...

Kudeaketa jasangarria

Argi dago itsasaldeak arazo larriak dituela, eta hau babes-teko jasangarritunaren neurriak ezartzea beharrezkoa dela. Helburu honekin, Itsasaldeko Kudeaketa Jasangarriaren Aldeko Foroak, Espainiako hainbat talde ekologista biltzen dituenak, manifestu bat atera du. Bertan, itsasalde jasangarri bat edukitzeko premiazko 68 neurri biltzen ditu.

68 neurri hauek, bost sektoretan bildu zituzte: lurralde antolaketa eta kostaren defentsa; turismo jasangarria; ura; arrantza baliabideen kudeaketa; eta biodibertsitatea eta itsa-

saldeko esparru natural babes-tuak. Neurriak oso ezberdinak dira: 2005. urterako, autonomia elkarteek inguru fisiko antolatze planak egitea proposatzen dute. Plan hauetan, hirigintza hazkunderantz arazoizko irizpideak ezarri beharko dira, eta udalerrien hirigintza planek autonomia elkargoak prestaturiko plana kontuan hartu beharko dute. Etkez beteak dauden itsasaldeetan, luzamendu bat eskatzen dute. Urte horretan, itsas-lurreko jabego publikoen mugak guztiak ere desegin beharko dira. Turismo guneetan ura aurrezteko neurriak, turismorako estatu plana eratu (hazkundera aurreikustean ekosistemen mugak kontuan hartuz), turismoaren eko tasa aplikatu...

Neurriak asko dira. Proposamenak mahai gainean daude. Argi dagoena da paseatzeko edota eguzkia agurtzeko hainbestetan erabiltzen dugun itsasaldea zaindu beharko dugula. Eta guztioi gustatzen zaigu itsasalde basatia, bakartia, hirigunetik urrun, hormigoirik gabekoa... Itsasaldea zaindu nahi badugu, administrazioen jarrera eta jarduerak jarraitu beharko ditugu, turismo basati eta merkantzien garraioen interesengatik suntsi ez dezaten. Edo turismoak itotako itsasaldea nahi dugu? Adibide krudelenak, gure mugetatik hurbil daude jada.

Aburuean

Udako ikastaroak

Uztailetik iraila arte, Sumendi elkar-teak antolatuta osasunaren autogestioaren inguruko hainbat ikastaro izango dira talde horrek Gami-zen (Bizkaia) duen etxean. Informazio gehiago 946 153 175 telefonon.

AHTren aurkako manifestazioa

Bilbon, uztailaren 6an eguerdiko ordu batean Zabalburu enparantatik abiatuko da.